EKOIZLE TXIKI ETA HANDIEN ETXEKO HONDAKINEN FRAKZIOAK BILTZEKO 20 LITROKO EDUKIONTZIEN HORNIDURA.

1. KONTRATUAREN XEDEA

Lizitazio honen helburua da esparru-akordio bat egitea enpresa bakar batekin, esparru-akordioaren indarraldian xedean sartzen diren horniduren baldintzak finkatzeko:

Prozedura honen bitartez:

1.- Mankomunitatearekin kontratatzeko gaitasun- eta kaudimen-baldintzak betetzen dituen enpresa hornitzailea hautatuko da. Horniduraren ezaugarriak direla eta, esparru- akordio hori enpresaburu bakar bati bakarrik egin eta esleitu ahal izango zaio.

2.- Xedean sartzen diren eta hautatutako enpresarekin sinatzen diren kontratuak esleitzeko eta gauzatzeko baldintza orokorrak finkatuko dira.

Kontratu honen xedea 20 litroko edukiontziak hornitzea da, ekoizle txiki eta handiengandik datozen etxeko hondakinen frakzioak biltzeko

Kontratuaren kodifikazioa lote guztientzat honako hau da:
CPV: 34928480-6: «Hondakinentzako eta zaborrentzako edukiontziak eta kuboak» (Nagusia)

2. IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratuak horniduraren izaera administratiboa izango du, eta bertan jasotzen ez den guztian, ondoko legeek xedatutakoari jarraituko zaio:

- 2014/24/EB Direktiba, otsailaren 26koa, Europako Legebiltzarrarena eta Kontseiluarena, kontratazio publikoari buruzkoa, 2004/18/EE Direktiba indargabetzen duena (aurrerantzean “Kontratuen Direktiba”).
- 2014/23/EB Direktiba, otsailaren 26koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, emakiden kontratuak esleitzekoa (aurrerantzean “Emakiden Direktiba”).
-Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; horren bitartez, Estatutuko antolamendu juridikora lekuz aldatzen dira otsailaren 26ko
2014/23/EB eta 2014/24/EB Direktibak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Arautegi Orokorra onesten duena, Sektore Publikoko Kontratuen Legean xedatutakoa kontra esaten ez duen guztian.
- Otsailaren 3ko 55/2017 Errege Dekretua, Espainiako ekonomiaren desindexaziori buruzko martxoaren 30eko 2/2015 Legea garatzen duena.
- Apirilaren 7ko 2/2016 Legea, Euskadiko Tokiko Erakundeei buruzkoa.
- 3/2016 Legea, apirilaren 7koa, Zenbait Klausula Sozial Kontratazio Publikoan
Sartzeko
- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- Toki Araubideko gaiei dagozkien eta indarrean dauden xedapenen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko Kontratuan xedaturikoarekin kontraesanean ez datorren guztian.
- Osagarri gisa zuzenbide administratiboko gainontzeko arauei jarraituko zaie eta, horrelakorik ez balego, zuzenbide pribatukoei.

Plegu honez gain, kontratu izaera izango dute hurrengo dokumentuek:

- Preskripzio teknikoen pleguak.
- Esleipendunak egindako eskaintzak
- Kontratua formalizatzen duen dokumentuak.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA HORNIDURA ENTREGATZEKO EPEA.

Kontratuak URTE BATeko iraupena izango du, formalizatzen den egunetik zenbatzen hasita. Kontratua beste urte batez luzatu ahal izango da. Luzapena nahitaezkoa da kontratistarentzat, baldin eta kontratuaren iraupen-epea amaitu baino lehenago jakinarazten bada.
Kontratuaren gehienezko epea: BI URTE

Eskaera bakoitza entregatzeko epea bi hilabetekoa izango da, dagokion jakinarazpena jaso eta hurrengo egun baliodunetik kontatzen hasita.

4. LIZITAZIORAKO GEHIENEZKO PREZIOA ETA KONTRATUAREN BALIOETSITAKO PREZIOA

20litroko edukiontzien hornidurari dagokion lizitaziorako oinarrizko aurrekontua, kontratuak irauten duen bitartean, honako hau da:

Kontuan harturik urtean erosiko diren edukiontzi kopuru orientagarria 900 unitate izango direla

- 8.100 euro, gehi BEZa (1.701 euro), guztira 9.801 euro.

- Edukiontziak hornitzeko lizitazioaren oinarrizko unitateko prezioa honako hau da:

- 9 euro (BEZ gabe) + 1,89 euro (BEZ), Guztira 10,89 euro

Eskaintza ekonomikoek ezin izango dituzte unitateko prezio horiek gainditu.
Lizitatzaileek egiten dituzten eskaintzetan, ondorio guztietarako, kontratuaren prezioa ez ezik, baldintza-agirietan jasotako betebeharrak betetzearen ondorioz kontratistari sortzen zaizkion gastuak ere sartzen direla ulertuko da, horniduraren garraio- eta instalazio-gastuak barne, hari lotutako pieza guztiak barne, funtzionamendu egokia bermatzeko, BEZa eta indarrean dauden xedapenen arabera aplikatzekoak diren gainerako zergak barne. BEZari dagokion zenbatekoa partida independente gisa agertuko da.

Kontratuaren BALIO ZENBATETSIA:

- 16.200 euro

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontu gisa ezarritako zenbatekoak ez dakar gastu- konpromisorik Debagoieneko Mankomunitatearentzat; aitzitik, hautatutako operadorearekin lortutako esparru-akordioaren eta esleipendunak eskainitako prezioen zerrendaren arabera egingo diren esleipenen batura izango da emaitza.Mankomunitatea ez dago behartuta gehieneko aurrekontua agortzera, eta gastu erreala esleipendunak eskainitako prezioetatik eta emandako bolumen efektibotik ondorioztatzen denera mugatuko da.

5. FINANTZAKETA

Kontratuaren zenbatekoaren finantzaketa egingo da honako kontu izendapenaren kontura:
2024ko aurrekontuko 3004.226.162.10.90, 3003.226.162.10.90, 3003.221.162.10.99.

Prezioaren ordainketa baldintzatuta dago dagokion ekitaldian behar hainako kreditua egotera, kontratua bukatu arte.

6. NOLA ORDAINDU

Zerbitzuaren prezioa hilabetero ordainduko zaio kontratistari, hornitutako kontenedore kopuruaren arabera; aurretik, enpresa esleipendunak dagokion faktura elektronikoa aurkeztu ondoren; faktura hori zerbitzuaren pertsona arduradunak gainbegiratu eta kontrastatuko du eta, hala badagokio, organo eskudunak onartuko du.
Faktura onartu eta gero, Sektore Publikoko Legearen 198. artikuluan aurreikusitako legezko epean ordainduko da.

DIR Kodea L052000019
Kontu Bulegoa L052000019
Organo kudeatzailea L052000019

7. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Sektore Publikoko Legearen 103. atalak xedatutakoaren arabera, ez dago prezioak berraztertzerik.

8. BERMEAK

Behin behineko bermea: ez da ezartzen Behin betiko bermea:
Kontratazio-organoak, kalitate-prezioa erlaziorik onenean eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari errekerimendua luzatuko dio, %5eko (BEZa kanpo) behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen dokumentazioa aurkez dezan gehienez ere 10 egun balioduneko epean,errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.Bermeak diruzaintzan jarri beharko dira eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 108. artikuluak xedaturiko eran aurkeztu ahal dira.

A) Dirutan edo Zor Publikoko balioetan, kasu bakoitzean, Lege hori garatzen duten arauetan ezarritako baldintzen arabera. Eskudirua eta idazpena duten balioen ibilgetze-ziurtagiriak erakunde hauetakoren batean gordailutu behar dira: Gordailuen Kutxa Nagusian, edo Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren ordezkaritzetako sukurtsaletan, edo kontratugile izan eta ondorioen onuradun diren autonomia- erkidegoetako edo toki-entitateetako haren pareko kutxa edo establezimendu publikoetan, Lege hori garatzen duten arauek xedatutako modu eta baldintzetan.

B) Abal bidez. Abal hori aipatutako Legea garatzen duten arauek xedatutako modu eta baldintzetan mailegatu beharko dute Espainian jarduteko baimena duten bankuek, aurrezki kutxek, kreditu kooperatibek edo elkarren bermerako sozietateek. Abala aurreko a) atalean adierazitako establezimenduetako batean gorde behar da.

C) Kauzio-aseguruaren kontratu bidez. Kontratu hori aipatutako Legea garatzen duten arauek xedatutako modu eta baldintzetan egin beharko du arlo horretan jarduteko baimena duen entitate aseguratzaile batek. Aseguruaren ziurtagiria aurreko a) atalean adierazitako establezimenduetako batean aurkeztu behar da.

D) Prezioaren erretentzioaren bidez, lehenengo fakturei ezarritakoa.

Behin betiko bermearen eraketa bide elektronikoen bidez egiaztatu ahalko da.

Lizitatzaileak bere eskaintza bertan behera utzi duela ulertuko da behin betiko bermea epean eratzen ez duenean berari egotz dagozkiokeen arrazoiak badaude eta lizitazio oinarrizko aurrekontuaren %3, zigor gisa, ezarriko zaio.

Esleipendunak, bermearen gain, honako hauek hartuko ditu, SPKL-ren 110. artikuluaren arabera

a) Kontratua epean formalizatzeko betebeharrari dagokionez.

b) Kontratistari ezarritako zigorrak SPKL-ren 192. artikuluaren arabera.

c) Kontratuan adierazitako zerbitzuak ondo betetzea; kontratistak bere betebeharrak betetzean berandutzearen ondorioz Administrazioari sortutako gastuak; kontratua suntsiaraztea bidezkoa ez bada, hura gauzatzeagatik edo ez betetzeagatik Administraziori sortutako kalteak eta galerak.

d) Kontratua suntsiarazten denean, erabaki daitekeen konfiskazioa, hartan edo lege honetan adierazitakoaren arabera.

e) Berme-epean akatsik edo errakuntzarik ez egotea

Berme hori itzultzea -bai osoa, bai zati bat bada-, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoaren arabera egingo da, behin berme-epea amaitu eta esleipendunak bere aldetik kontratuko betebehar guztiak beteak dituenean.

II. KONTRATATZEKO PROZEDURA

9. JARDUNBIDEA ETA ESLEIPEN MODUA.

Esparru-akordioa egiteko, SPKLren II. Liburuko I. tituluko I. kapituluko 1. eta 2. ataletan ezarritako prozedura-arauei jarraituko zaie (115-187. artikuluak).

Kontratista hautatzea eta kontratu hau esleitzea prozedura irekiaren eta izapidetze arruntaren bidez egingo da.

10. KONTRATATZEKO GAITASUNA EGIAZTATZEA

Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte pertsona natural edo juridikoek, espainiar edo atzerritarrek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badute, kontratatzeko inolako debekurik ez badute, eta beren kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala frogatzen badituzte.

1. Enpresarien **jarduteko gaitasuna** honela egiaztatuko da:

a) **Pertsona juridikoak** diren enpresarien jarduteko gaitasuna egiaztatuko da eraketako eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sorrera-egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez. Dena delako agiri horretan jarduerak zer arauren arabera arautzen diren adierazita egon beharko du eta, gainera, pertsona juridiko horri dagokion erregistro publikoan inskribatuta egon.

b) **Europar Batasuneko kide den estaturen batekoak izan, baina Espainiakoak ez diren enpresarien** jarduteko ahalmena egiaztatzeko, bizi diren Estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenen araberako zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, araudian ezarritako baldintzak betez.

c) **Atzerriko gainerako enpresariek** enpresaren helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrak edo kontsuletxeko bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko dute.

2. Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 140. artikuluaren 3. atalaren bigarren paragrafoan 60. artikuluan adierazitako kontratatzeko debekurik ez dutela frogatu behar dute enpresariek. Horretarako, kasua zein den, lekukotza judiziala edo administrazio-ziurtagiria

aurkeztu beharko dituzte. Horretarako eskuduntza duenak agiri horiek egin ezin baditu,

administrazioko agintaritzak, notario publiko batek edo erakunde profesional kualifikatu batek

egindako erantzukizunpeko adierazpen batek ordez ditzake.

2. Enpresariaren kaudimena

2.1 Enpresariaren **ekonomia eta finantza kaudimena** egiaztatuko da honako modu honetan: Negozioen bolumenari buruzko adierazpenaren bidez, eta, hala badagokio, kontratuaren xedeari dagokion jarduera- eremuko negozioen bolumenari buruzko adierazpenaren bidez. Horretarako, jardueraren sorrera- edo hasiera-data kontuan hartuta, azken hiru urteetako ekitaldietako negozioen bolumena hartu beharko da kontuan, datu horiek eskuragarri badituzte. Eskatzen den gutxieneko negozioen bolumena izango da lizitazio oinarrizko aurrekontuaren %100. Negozioen urteko bolumena bere urteko kontuen bidez, onartuak eta Merkataritza Erregistroan jasoak, egiaztatuko da, eta bestela, inskribatua egon behar dueneko Erregistro Ofizialean jasota dauden kontuen bitartez eta horrekin batera bolumen horri buruzko enpresariaren adierazpenaren bidez Merkataritza Erregistroan inskribatu gabeko enpresari indibidualek beren urte negozioen bolumena Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario-liburuen eta urteko kontuen bitartez egiaztatuko dute.

2.2. Enpresarien **kaudimen teknikoa edo profesionala modu honen bidez** egiaztatu beharko da:a) **Azken hiru urteetan egindako zerbitzu zein lanik nabarmenenak edo emandako zerbitzurik aipagarrienak**, zerbitzu edo lan horien zenbatekoak, datak eta hartzaileak, publiko zein pribatuak, jasotzen dituen zerrenda. Gutxieneko eskakizuna honako hau izango da: exekuzio handieneko urtean izandako urteko zenbateko metatua lizitazio oinarrizko aurrekontuaren %70aren berdina edo handiagoa izatea. Hartzailea sektore publikoko erakundea denean, organo eskudunak jaulkitako edo ontzat emandako ziurtagiri bidez egiaztatu beharko dira egindako lanak edo zerbitzuak; hartzailea subjektu pribatu bat denean, berorrek emandako ziurtagiriaren bitartez, eta, halakorik ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez; behar izanez gero, ziurtagiri horiek zuzenean jakinaraziko dizkio agintaritza eskudunak kontratazio-organoari.

11. PUBLIZITATEA

Hitzarmenaren lizitazioa, esleipena eta formalizazioa Debagoieneko Mankomunitatearen kontratzailearen profilean argitaratuko dira.
Profilera honako web orriaren bitartez irits daiteke: www.debagoiena.eus

12. ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA ETA BESTELAKO BETEBEHARRAK

Proposamenak lizitazio elektronikorako www.contratacion.euskadi.eus plataformaren bitartez aurkeztuko dira, lizitazio iragarkia kontratatzaile profilean argitaratzen denetik **15 EGUN NATURALEKO** epean.

Lizitatzaile bakoitzak proposamen bat bakarrik aurkeztu dezake. Ezin izango da aldi-baterako enpresa elkartean proposamenik egin aurretik beste bat bakarka egin bada. Baldintza hori hausten duen enpresariari atzera botako zaizkio automatikoki aurkeztu dituen proposamen guztiak.

Eskaintza bat aurkezteak enpresariak agiri honetako klausulak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela esan nahi du

Lizitazioan parte hartzeko proposamenak Euskadiko Kontratazio Plataformako **HIRU ARTXIBO ELEKTRONIKOETAN** aurkeztu behar dira. Artxibo horien izenak honako hauek dira:

1. **ARTXIBO ELEKTRONIKOA : "GAITASUN ETA KAUDIMENARI BURUZKOA"**

2. **ARTXIBO ELEKTRONIKOA : "DOKUMENTAZIO TEKNIKOA"**

3. ARTXIBO ELEKTRONIKOA : “ESKAINTZA EKONOMIKOA”

1. ARTXIBO ELEKTRONIKOA : “GAITASUN ETA KAUDIMENARI BURUZKOA”

Artxibo elektroniko honetan ondoren zerrendatzen diren dokumentuak aurkeztu beharko dira

Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB)

Enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimen eta bitartekoak baliatzen dituenean, horietako bakoitzeko EKAB bat aurkeztu beharko da.

Lizitazio elektronikoaren jarraibideak,(I. eranskina) lizitatzaileak edo honen ordezkariak sinatuta.

Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratzeko konpromisoa, hala badagokio. Bi enpresa edo gehiago lizitazio batera aurkezten direnean aldi baterako elkartea osaturik, dokumentu pribatua aurkeztu beharko dute, horretan adierazita elkartearen kide diren enpresen izenak eta zertzeladak eta bakoitzaren partaidetza. Konpromisoa adierazi beharko dute, era berean, esleipendun gertatuz gero formalki aldi baterako elkarte gisa eratzeko (SPKLren 69. artikulua eta HAKLEOren 24. artikulua). Agiri hori elkartea osatzen duten enpresetako bakoitzaren ordezkariek sinatu beharko dute. Horrelako kasuetan, enpresa bakoitzak bere EKAB aurkeztu beharko du. Baldintza-agiri honetako **II. eranskinean** Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratzeko konpromisoaren eredua jasotzen da.

Azpikontratatzeko asmoari buruzko aitorpena, behar bada. III.eranskinean jasotzen da horretarako eredua

Lizitatzaile atzerritarren dokumentazioko berezitasunak. Lizitatzaile atzerritarrek, dagoeneko aipatutako dokumentazioaz gain, ondoren zehazten den dokumentazio zehatza aurkeztu beharko dute. Espainiarrak ez diren enpresa guztiek aurkeztu beharrekoak:

Espainiako edozein motatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mendean jartzen direlako adierazpena. Kontratuan zuzenean edo zeharka sor daitezkeen gorabehera guztietarako, lizitatzaileari egoki dakiokeen atzerriko jurisdikzio foruari uko egiteari buruzko adierazpena, hala dagokionean (SPKLren 140.1 f) artikulua).

Europar Batasuneko kide edo Europar Eremu Bakarrari buruzko Akordioaren sinatzaile ez diren estatuetako enpresek, aipatu guztiez gain, honakoak aurkeztu beharko dituzte:

- Enpresak egoitza duen lekuan Espainiak duen Diplomaziako Misio Iraunkorrak edo Kontsuletxeko Bulegoak emandako txostena, horretan erasota lagaz, enpresak aurrez frogatuta betiere, tokiko erregistro profesionalean, komertzialean edo antzekoren batean izena emanda dagoela edo, bestela, tokiko trafikoan ohiz aritzen dela kontratuaren xede diren jardueren esparruan.

- **Elkarrekikotasun txostena**, SPKLren 68. artikuluak aipatua, non eta ez diren erregulazio harmonizatupeko kontratuak, zeren eta horrelakoetan txosten horren ordez Diplomaziako Misio Iraunkorraren edo Ekonomia MinisterioarenKanpo Merkataritzako Idazkaritza Nagusiaren txostena beharko baita, Merkataritzaren Mundu Erakundearen Kontratazio Publikoari buruzko Akordioaren estatu sinatzaile izaerari buruzkoa.

Kontratazio organoak edo kontratazio mahaiak, edozein unetan, dokumentu bidezko justifikazioa eskatu ahal izango dute, lizitatzaileek, erantzukizunpeko adierazpen bitartez, betetzen dituztela

adierazitako baldintzei buruz.

Lizitatzaileak behar besteko epea izango du eskatutako dokumentazio aurkezteko. Epe hori ezingo da hamar egun baliodunetik gorakoa izan, errekerimendua jaso eta biharamunetik kontatzen

hasita. Errekerimendua ez bada behar bezala aurkezten aipatu epean, ulertuko da lizitatzaileak kendu egin duela bere eskaintza eta, horrenbestez, prozeduratik kanpo geratuko da.

2. ARTXIBO ELEKTRONIKOA : "DOKUMENTAZIO TEKNIKOA"

1. Edukiontzi sistemaren ezaugarri teknikoen deskribapen zehatza, dimentsioak, materialak, akaberak, piezakatze-planoak, argazkiak edo ikuspegi teknikotik sistemak hobekien deskribatzen dituen beste edozein informazio grafiko barne.

Baldintza-agiri teknikoen 1. eranskinean zehazten dira edukiontzietarako onargarriak diren gehieneko kota eta perdoiak. Ez da onartuko gehienezko perdoiak eta kotak errespetatzen ez dituen edukiontzirik, baldintza-agiri teknikoen 1. eranskinean zehaztutako zintzilikagailu-sistemarekin bateragarria ez denik. Aurkeztutako edukiontzia baldintza-agiri teknikoen 1. eranskinean adierazitako esekitoki-motara egokitzen ez bada (heldulekutik eta atzealdeko bisagratik zintzilikatuta) lizitazio-prozesutik kanpo geratuko da.

2. Aurkeztutako dokumentazioan egiaztatu beharko da hornidura eskatutako RALari egokituko zaiola. Antzekoa baina berdina ez den beste RAL bat erabiltzea proposatzen bada, dokumentazioan hori adierazteaz gain, RAL horretako material plastikozko laginak aurkeztuko dira, gutxienez 0,2 x 0,2 m-ko azalerakoak.

3. Egiaztapen-ziurtagiriak

Lizitatzaileek birziklatutako materialen erabilera-ziurtagiriak aurkeztuko dituzte.

Lizitatzaileek dituzten sendotasun- eta erresistentzia-ziurtagiriak aurkeztu ahal izango dituzte.

3. ARTXIBO ELEKTRONIKOA: "FORMULEN GUTUN-AZALA"

Proposamenak IV. eranskinean jasotzen den ereduari egokitu beharko zaizkio.-

Eskaintzaren batek lizitazio oinarriaren aurrekontua gainditzen badu, ezarritako eredua nabarmen aldatzen badu, eskaintzaren zenbatekoan akats nabaria badauka edo lizitatzaileak berak aitortzen badu akatsak dituela eta ez dela bideragarria, kontratazio mahaiak baztertu egingo du, ebazpen arrazoitu bat emanez betiere. Aldiz, ereduko hitz batzuk aldatzea edo kentzea, baldin eta ez badute ereduaren zentzua aldatzen, ez da nahiko arrazoi izango proposamena baztertzeko.
Lizitatzaile bakoitzak proposamen bakar bat baino ezin izango du aurkeztu, hargatik eragotzi gabe SPKLren 142. artikuluan aldaerak onartzeari buruz ezarritakoa. Halaber, ezingo du beste enpresa batzuekin batera aldi baterako elkartea eginez proposamenik aurkeztu, aurretik bakarka aurkeztu badu edo aldi baterako elkarte bat baino gehiagotan badago. Printzipio hau urratuz gero, aldi berean aurkeztutako eskaintza guztiak ezetsi egingo dira.

Proposamena enpresa talde batek egina denean, taldeko enpresa guztiek izenpetu behar dute, zuzenean edo beren ordezkariaren bitartez.


13. KONTRATUA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

1.- Automatikoki ebaluagarriak diren irizpideak: Eskaintza ekonomikoa: 60 puntu

Onartutako proposamenei dagozkien eskaintza ekonomikoen puntuazioak interpolazio linealaren bidez kalkulatuko dira, zerbitzua emateko eskaintza ekonomikoaren bi puntuek definitutako zuzenaren arabera.

4 interpolazio-zuzen definitzen dira, eskaintza ekonomiko onuragarrienaren arabera.

A eremua
Eskaintza ekonomiko abantailatsuenak definitutako zuzena, 60 puntu eta eskaintzarik merkeenaren
% 75eko jaitsiera, 54 punturekin (puntuen % 90).
B eremua
Eskaintzarik merkeenaren % 75eko jaitsieraren puntua, 54 punturekin eta eskaintza merkeenaren jaitsiera 45 punturekin (guztizkoaren % 75).
C eremua
Puntua, eskaintza merkeenaren % 50eko jaitsierarekin , 45 puntu, eta puntua, % 25ekin eskaintza merkeenaren jaitsiera 30 punturekin (guztizkoaren % 50).
D eremua
Puntua, eskaintza merkeenaren % 25eko jaitsierarekin, 30 puntu, eta lizitazio-prezioa, 0 punturekin.



Eskaintzak neurrigabeak konsideratuko dira honako kasu hauetan:

1. Lizitatzaile bakarra izanik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 25 ehuneko unitate baino baxuagoa denean.

2. Bi lizitatzaile lehiatzen direnean, beste eskaintza baino 20 ehuneko-unitate baino baxuago dena.

3. Hiru lizitatzaile lehiatzen direnean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino ehuneko 10 unitate baxuagoak direnak. Hala ere, batez besteko hori zenbatzeko, batez besteko hori baino 10 ehuneko-unitate baino handiagoa den eskaintza ez da kontuan hartuko. Edonola ere, neurriz kanpokotzat joko da 25 ehuneko unitatetik gorako baja.

4. Lau lizitatzaile edo gehiago lehiatzen direnean, aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoa baino 10 ehuneko-unitate baino baxuagoak direnak. Hala ere, horien artean batez besteko hori baino ehuneko 10 gehiago gainditzen duten eskaintzak badaude, beste batez besteko bat kalkulatuko da, adierazitako kasuan ez dauden eskaintzekin soilik. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria zenbateko txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatuko da.

2.- Balio-judizioaren arabera kuantifikatzen diren irizpideak (edukiontzien ezaugarri teknikoak eta funtzionalak): 40 puntu

- Mankomunitatean kuboak biltzeko ezarritako zintzilikario-sistemara egokitzea (plegu teknikoaren I. eranskina): 12 puntu.

Mankomunitateak baloratuko du esekigailuen sistemara egokitzea, bai heldulekuaren arabera, bai atzeko erlaitzaren arabera. Baldintza-agiri teknikoaren I. eranskinean adierazitako zintzilikatzaile motara egokitzen ez bada, bai heldulekutik, bai geroko bisagratik zintzilikatuta, lizitazio-prozesutik kanpo geratuko da.

- Erabiltzeko eta lekualdatzeko erraztasuna: 9 puntu.

Mankomunitateak tapa irekitzeko/ixteko, heldulekua altxatzeko/jasotzeko eta tapa heldulekuarekin ixteko orduan erabiltzeko erraztasuna baloratuko du.

- Ontziak osatzen dituzten zatiak muntatzeko eta desmuntatzeko erraztasuna: 6 puntu.

Estalkia eta heldulekua muntatzeko eta desmuntatzeko erraztasuna kontuan hartuko da.

- Materialaren akaberak, sendotasuna eta erresistentzia, birziklatutako materialaren ehunekoa, pisuak, zatien arteko ahokadura, RAL, etab.: 13 puntu.

Aurkeztutako ontzien akabera baloratzeko orduan, Mankomunitateak ontzien pisua eta poltsa konpostagarriak hautsi ditzaketen ertzak ote dauden baloratuko du.
Horrez gain, ontzien sendotasuna eta erresistentzia zehazteko hainbat proba egingo ditu.
Material birziklatuaren erabilera-ziurtagiriak eta sendotasun- eta erresistentzia-ziurtagiriak aurkeztea positibotzat joko da.
Beharrezkoa izango da estalkia ontziaren gorputzera akoplatzea; Mankomunitateak ontzia lizitazio prozesutik kanporatu ahal izango du, ahokadura egokia ez dela ondorioztatzen badu (ez bada behar bezala akoplatzen edo lasaierak gehiegizkoak badira).
Era berean, eskainitako RALari puntuazioa emango zaio. Aurkeztutako RALaren eta eskatutakoaren arteko aldea onargarria den edo gehiegizkoa den baloratuko da. Gehiegizkoa balitz, lizitazio prozesua bertan behera utziko litzateke

Lizitaziotik kanpo geratuko dira balorazio honetan gutxienez 20 puntu lortzen ez dituzten proposamenak.

14. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AGIRIAK KALIFIKATZEA

14.1.- BAT zk.ko artxibo elektronikoak zabaltzea eta dokumentazio administratiboa kalifikatzea.

1.- Proposamenak aurkezteko epea amaiturik, kontratazio mahaiak ireki eta kalifikatu egingo du lizitatzaileek BAT zenbakiko artxibo elektronikoan garaiz eta behar moduan aurkeztutako dokumentazio administratiboa. Mahaiak akats edo huts konpongarririk ikusten badu dokumentazio aurkeztuan, alderdi interesdunei emango die aditzera, eta gehienez 3 egun naturaleko epea emango die horiek zuzendu edo konpontzeko. Era berean, dagoeneko aurkeztuaz gain beste

zenbait dokumentu osagarri edo argigarri aurkezteko eskatu ahal izango die mahaiak lizitatzaileei, hori aurkezteko 5 egun naturaleko epea ematearekin batera.

2.- Azkenean kontratazio mahaiak zehaztu egingo du zein lizitatzaile onartzen dituen lizitazioan eta zein uzten dituen kanpoan, horietarako arrazoiak ere emanda.

14.2 BI zenbakidun artxibo elektronikoen irekiera.

Ondoren, bi zenbakidun artxibo elektronikoak irekiko dira, balio-judizioen bitartez baloratu beharreko irizpideak dauzkatenak

14.3.- HIRU zenbakidun artxibo elektronikoak irekitzea eta aztertzea

1.- HIRU zenbakidun artxibo elektronikoak ekitaldi publikoan irekiko dira eta, deialdian horrela adierazten bada, zuzenean jarraitu ahal izango da ekitaldia, kasuan kasuko deialdian adierazten den estekaren bitartez.

2.-Artxibo elektroniko horietan jasotzen den dokumentazioa adierazten diren irizpideekin bat ebaluatuko da.

14.3.- Kontratazio mahaiaren aktak

Aurreko apartatuen arabera jardundako guztia jasota lagako da dagozkion aktetan, horiek prozeduraren emaitza eta izandako gorabeherak jasoko baitituzte.

14.4- Kontratazio mahaiaren egintzen emaitzaren publizitatea eta lizitatzaileei jakinaraztea

1.- Eskaintzen kalifikazio, onarpen edo baztertzea kontratatzailearen profilean argitaratuko da. Argitaratze horretatik kanpo geratuko da indarrean dagoen legediarekin bat argitaratu ezin den informazioa. Dena den, kasuan-kasuan bidezko diren komunikazio edo jakinarazpenak zuzenduko zaizkie lizitatzaile ukituei.

2.- Lizitatzaile bat kanpoan uzten bada, egintza hori ekitaldi publikoan bertan jakinaraziko zaio hari, enpresaren ordezkaria ekitaldian bertan dagoela-eta hori posible baldin bada, edo, bestela, jarraitu egingo dira 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 40. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako bestelako prozedurak.

3.- Bitarteko elektroniko bidezko jakinarazpena errefusatua izan dela ulertuko da, jakinarazpena eskuratzeko moduan jarri eta 10 egun natural igaro direnean horren edukira sartu gabe; eta jakinarazpena eskuragarri jartzen denean, jakinarazpen betekizuna epe barruan bete dela ulertuko da.

15. KONTRATAZIO MAHAIA

Kontratazio Mahaia honako kide hauek osatuko dute:

Lehendakaria:
Mankomunitateko Lehendakaria./ Ordezkoa: Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuko arduradun politikoa

Mahaikideak
1.Mankomunitateko idazkari-kontu hartzailea./ Ordezkoa: Kontuhartzailetzako teknikaria
2.Mankomunitateko ustiapen arduradura. / Ordezkoa: Ingurumen saileko zerbitzuburua.

Mahaiko idazkaria:

Idazkari-Kontuhartzailea./ Ordezkoa: Kontuhartzailetzako teknikaria

16. DOKUMENTUAK ESKATZEA

Kontratazio organoak, kalitatea-prezioaren ikuspuntutik eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileari errekerituko dio, errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita HAMAR EGUN BALIODUNeko epean, agiri hauek aurkezteko:

a) Kontratatzeko gaitasuna eta kaudimena egiaztatzeko A gutun-azalean aurkezturiko ardurapeko aitorpenean adierazitako dokumentazioaAurkeztutako agirietan akats materialik antzematen badu eta egoki irizten badio, lizitatzaileari gehienez hiru eguneko epea emango dio akats hori zuzen du dezan.

b) Behin betiko bermea eratu duela ziurtatzen duen agiria.

c) Bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela ziurtatzen duen agiria;

Kontratuaren xedea den jarduera egiteko estaldura ekonomiko nahikoa duen erantzukizun zibileko aseguruaren poliza harpidetuta daukala egiaztatzen duen dokumentazioa, eta aseguruaren ordainketan egunean dagoela ziurtatzen duen frogagiria.

Dokumentuen eskaeraren epea betetzen ez bada, ulertuko da lizitatzaileak eskaintza bertan behera utzi duela, eta zigor moduan eskatuko zaio lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3, BEZ kanpo,
71. artikuluaren 2. apartatuko a) letran kontratazioa eragozteko kausei buruz ezarritakoa gorabehera; eta eskaera berri bat egingo zaio haren hurrengo enpresa lizitatzaileari edo lizitatzaileei, eskaeren hurrenkerari jarraiki.

17. KONTRATUAREN ESLEIPENA

Kontratazio-organoak, dokumentazioa jaso eta hurrengo bost lan eguneko epean, kontratuaren esleipena egingo du.
Esleipenduna aldi baterako enpresa-elkartea denean, epe beraren barruan eta kontratua sinatu baino lehen, elkarte bezala eratuta dagoela frogatzen duen eskritura publikoa aurkeztu beharko du eta elkarteari dagokion IFZ.

18. KONTRATUA FORMALIZATZEA

a. Kontratua hamabost (15) egun behin igarota formalizatuko da, esleipenaren jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Agiri hori nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikotara jotzeko. Epe horretan, kontratua formalizatzera agertu beharko da lizitatzailea.

Baldin eta lizitatzailearen erruz kontratua ez bada Mankomunitateak adierazitako epean formalizatzen, zigor moduan eskatuko zaio lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3, BEZ kanpo, 71. artikuluaren 2. apartatuko a) letran kontratazioa eragozteko kausei buruz ezarritakoa gorabehera; eta eskaera berri bat egingo zaio haren hurrengo enpresa lizitatzaileari edo lizitatzaileei,

eskaeren hurrenkerari jarraikiz.

Kontratua ez formalizatzeko kausak Administrazioari egotzi badakizkioke, kontratistari kalte ordainak emango zaizkio, berandutze horrek sor diezazkion kalte-galerengatik.
Kontratuaren formalizazioa dagokion kontratuarekin batera argitaratuko da kontratatzailearen

profilean, gehienez ere kontratua perfekzionatu eta hamabost eguneko epean.

b. Esparru-akordioa formalizatu ondoren, bertan oinarritutako kontratuak soilik egin ahal izango dira kontratazio-organoaren eta hautatutako enpresaren artean, SPKLren 221. artikuluan

aurreikusitakoarekin bat etorriz. Mankomunitateak, dituen beharren arabera egingo ditu eskaerak.

Esparru-akordio honetan oinarritutako kontratuen esleipena hiru hilean behin argitaratuko da kontratatzailearen profilean.

19. ASEGURUAK

Esleipendunak hirugarrenei eragin ahal dizkien kalte material eta pertsonal guztien gaineko "arrisku orotako" aseguru bat eta lanbide arloko arriskuak bermatzeko HIRUREHUN MILA (300.000 €) eurokoa gutxieneko estaldura izango duen erantzukizun zibil orokorrari, patronalari eta lokalari buruzko aseguru-poliza sinatuta dituela egiaztatu beharko du. Izan ere, esleipendunak asegurua izan beharko du hirugarrenei eragindako kalteak estaltzeko eta, aldi berean, erabiltzen diren ondasunei eta Mankomunitateak kontratua betetzeko utzi dituen materialei eragindako kalteak estaltzeko.

III.- KONTRATUA GAUZATZEA

20. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua kontratistaren gain eta haren kontura burutuko da.

Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Kontratu honen funtsezko baldintza da hornidura aurkeztutakoen neurri, ezaugarri eta kalitate berdinekin eta baldintza-agirietan eta ezarritako epean egitea.

Mankomunitateko zerbitzu teknikoek burutu ahalko dituzte egiaztapen, probak eta kontrol egokiak hornidura bakoitza, hornidura kontratu honek aurreikusitako eta eskatutakora egokitzen den egiaztatze aldera.

21. KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratistak lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta higienearen arloan indarrean dauden legezko xedapenak bete behar ditu. Administrazioak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

22. KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA KONTRATUA BURUTZERAKOAN BESTE BATZUEI KALTEAK ERAGITEN BADIZKIE

Kontratistaren ardura da hornidura-eragiketen ondorioz sor litezkeen kalteak eta galerak bere gain hartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

23. ZERBITZUA HARTZEA ETA BERME EPEA

Hornidura eman eta, gehienez, hilabete pasa baino lehen, horniduraren harrera formala eta

positiboa egingo da.

Hornidura jasotzeko moduan ez badago, hori berariaz agerraraziko da eta kontratistari jarraibideak emango zaizkio akatsak zuzentzeko edo hornidura berria emateko, hitzartutakoaren arabera. Akatsak zuzentzen ez baditu, edo hornidura berritzen ez badu, Administrazioak kontratistaren kontura utziko du hornidura. Horiek horrela, Administrazioak ez du ordaindu beharko, edo ordaindutakoa berreskuratzeko eskubidea izango duGainera, urte beteko epea egongo da, harrera formalaren egunetik hasita zenbatu beharrekoa, Sektore Publikoko Kontratuen Legean eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrean adierazitako ondorioetarako.
Administrazioak, berme-epean, akatsak dituzten hornidurak berritu edo konpondu daitezela eskatzeko eskubidea izango du.

Berme-epean, jasotako hornidurak, kontratistaren akatsen ondorioz, helbururako egokiak ez direla konturatzen bada Administrazioa, eta susmatzekoa bada akatsak konponduta edo hornidura berria emanda nahikoa izango ez dela, Administrazioak atzera bota ditzake hornidurak, kontratistaren kontura utziz.

24. KONTRATISTARI EZARRI BEHARREKO ZIGORRAK BALDINTZAK BETETZEN EZ BADITU.

A. KONTRATUA BURUTZEKO EPEAK EZ BETETZEA

Kontratistak, bere erruagatik, kontratua burutzeko epe osoa edo epe partzialak igarotakoan burutu gabe baditu epe horietan egin beharreko obrak, Administrazioak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera utzi eta bermea bereganatzea, edo obrak burutu arte igarotzen den egun bakoitzeko diru-zigorra ezartzea: egunean 0,60 euro kontratuaren prezioaren 1.000 euroko.

Lanak garaiz burutu ez izanagatiko zigorra kontratuaren prezioaren 100eko 5aren multiplo bat izatera iristen den bakoitzean Kontratazio Organoak kontratua eteteko eskumena du, edo kontratuaren jarraipena adosteko, zigor berriak ezarrita.

B. PRESTAZIOEN BURUTZAPEN PARTZIALA EZ BETETZEA

Kontratistak, bere erruagatik, kontratuko zerbitzuen burutzapen partziala epean bukatzen ez badu, Udalak bi aukera izango ditu: kontratua bertan behera uztea edo kontratuaren prezio osoaren 10eko diru-zigorra ezartzea.

C. KONTRATU BURUTZEAN AKATSAK EGITEA

Prestazioa burutzean akatsak izan badira, Udalak kontratuaren aurrekontuko zenbatekoaren % 10eko diru-zigorra ezartzeko aukera izango du, baina horiek guztiek batera ezingo dute kontratuaren %50 gainditu.

Kasu guztietan, Administrazioak ezarritako zigorrak ez baditu estaltzen hari sortutako kalteak, kontratistari dagokion kalte ordaina eskatuko dio, kalte-galerengatik.

Zigorrak ezarriko dira SPKLren 194. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.

25. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratazio honen bitartez datu pertsonalak eskuratzen badira, kontratatzaileak SPKLaren Hogeita Bosgarren Xedapen Gehigarrian adierazitakoak bete beharko ditu, Datu Pertsonalak Babestekoa eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan eta hori garatzen duten arauetan xedatutakoak biltzen baitira bertan.

26. KONTRATUAREN ALDAKETA

Administrazioak kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako egoeraren batean, 206. artikuluan ezarritako baldintzapean. Aldaketa posible horiek nahitaezkoak izango dira kontratistarentzat, berekin dakartenean, bakarka edo batera, kontratuaren hasierako prezioaren % 20 baino gutxiagoko aldaketa bat, BEZ kanpo.

Nolanahi ere, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen 309. artikuluan xedatutakoaren arabera, prezioa egikaritze-unitateen bidez zehazten den kasuetan, ez dira aldaketatzat hartuko, administrazio-klausula zehatzen agirian hala ezarrita badago, prestazioa behar bezala gauzatzen den bitartean kontratuan aurreikusitako unitateetatik benetan gauzatutako unitate-kopuruan soilik gertatzen diren aldaketak; unitate horiek likidazioan jaso ahal izango dira, betiere gastuaren igoera kontratuaren prezioaren ehuneko 10etik gorakoa ez bada. Kasu horretan, kontratua aldatzeko espedientea ez da izapidetuko.

27. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsitzeko arrazoiak izango dira Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 211. artikuluan orohar kontratu administratiboetarako aurreikusitakoak eta, era berean, Lege bereko 306. artikuluan bereziki hornidura-kontratuetarako jasotakoak.

Kontratua suntsitzeko ondorengo kasua ezartzen da espresuki: esleipendunak kontratatzeko betekizunak galtzea (kontratistaren gaitasuna eta kontratatzeko debeku arrazoia ez izatea), Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezartzen denaren arabera, baita kontratu honen funtsezkotzat jotzen diren baldintzak.

28. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak, hirugarrenekin prestazioaren zati bat egitea hitzar dezake. Azpikontratuek azaroaren 8ko 9/2017 Legean, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoan ezarritako eskakizunak beteko dituzte; horren bitartez, Estatutuko antolamendu juridikora lekuz aldatzen dira otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Direktibak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak.

Eskaintzaileek eskaintzan (**III. eranskina**) adierazi beharko dute azpikontratatuko duten kontratuaren zatia eta kontratuaren prezioaren gainean (BEZrik gabe), ehunekoa, zenbatekoa eta enpresaren izena edo profila azalduko dituzte. Azkenekoa azpikontratisten kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzak aipatuz definituko da. Hori egin ezean, ezarri ahalko dira SPKLren
215.3 artikuluak xedatutako zigorrak.

29. ADMINISTRAZIOAREN ESKUDUNTZAK

Administrazioari dagokio a) kontratua interpretatzea, b) kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, c) herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, d) kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

30. BALDINTZA BEREZIAK

Edukiontziak hornitu eta Mankomunitateraino garraiatuko dituzten ibilgailuek gutxienez “B klase”-ko ingurumen bereizgarria izan beharko dute, “Resolución de 13 de abril de 2016, de la Dirección General de Tráfico, por la que se modifica el apartado C.1 del punto primero y los anexos I, II y VIII de la de 8 de enero de 2016, por la que se establecen medidas especiales de regulación del tráfico durante el año 2016”-ren arabera.

IV. JURISDIKZIO ESKUDUNA

31. JURISDIKZIOA

Kontratua betetzerakoan sor daitezkeen zalantzak kontratazio organoak konponduko ditu. Hura amaitzeko hartutako erabakiak administrazio bidea amaituko dute, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren bitartez aurkaratu ahal izango dira.

I. DEUC formularioa

II. Lizitazio elektronikorako jarraibideak eta jakinarazpenak egiteko bideen komunikazioa. (I Eranskina)

III. Aldi Baterako Enpresa Elkartea eratzeko konpromisoa. (II Eranskina)

IV. Azpikontratatzeko asmoari buruzko aitorpena (III Eranskina)

V. Proposamen ekonomikoa (IV Eranskina)

I. ERANSKINA.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO JARRAIBIDEAK I.- LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA.

Kontratazio prozedurako izapideetan (dokumentazioa bidaltzea, kontratua sinatzea, jakinarazpenak jasotzea...) lizitazio elektronikorako sistema erabiltzeko baldintzak

Betekizun administratiboak:
-Tramitazio elektronikora begira baimenduta dagoen **ziurtagiri digital** bat edukitzea. Gaur egun ziurtagiri elektroniko horiek honakoak dira:

- Izenpe (erakundea, herritarra, erakunde- ordezkaria).
- DZFN (erakundea, herritarra, erakunde- ordezkaria).
- NAN-e
- Camerfirma (erakundea, herritarra)

-Betekizun teknikoak:
Lizitazio elektronikorako betekizun teknikoei buruzko informazioa ondoko estekan dago eskuragarri: https://www.contratacion.euskadi.eus/informaz io-orokorra-lizitazio-elektronikoa/w32-kpelicel/eu/

Lizitazio elektronikoaren inguruko zalantzak edo gorabeherak argitu eta bideratzeko euskarri zerbitzua: CAU.012/945.016.380
IZENPE ziurtagiri digitalaren inguruko zalantzak edo gorabeherak argitu eta bideratzeko euskarri zerbitzua: IZENPE CAU. 902542542

-Lizitazio elektronikoko sisteman sartzeko modua:

Sistema erabili ahal izateko, ondoko atari honetan sartu beharko da: https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

- EKAB dokumentua betetzeko jarraibideak:

www.contratacion.*euskadi.eus*/appcont/profila/help/Ayuda_DEUC_Licitador_es

II.- JAKINARAZPENAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Elektronikoki egingo dira.

Lizitatzaileak lizitazio elektronikoaren baldintza heuk onartzen ditu:

Izpta.:

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

II. ERANSKINA - ALDI BATEKO ENPRESEN ELKARTEA ERATZEKO KONPROMISOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena — NAN-IFZ

Norberaren izenean

Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

IDENTIFIKAZIO DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena — NAN-NIF

Norberaren izenean

Ordezkatzen dudan enpresaren izenean

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

***** *Egokitu eredua, baldin eta Aldi bateko Enpresa Elkartea eratuko duten enpresa esleipendun gertatzen badira, enpresa bakoitzaren ordezkari diren pertsona guztiei buruzko datuak eransteko.*

KONTRATAZIO ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena: 20 litroko edukiontzien hornidura

Erreferentziazko kodea
65/2024

ADIERAZTEN DUTE

- Aldi bateko Enpresen Elkartea formalki osatzeko konpromisoa hartzen dutela, baldin eta aipatutako kontratuaren lehiaketan esleipendunak ateratzen badira, honako partaidetza-portzentaje honekin:

Enpresaren izena	%

- Elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatzen dutela, kontratutik sortutako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko, kontratua azkendu artean nahikoa ahalorde izango duen Jaun/Andrea:

Izena eta abizenak	

-
-

III. ERANSKINA: AZPIKONTRATAZIOARI BURUZKO AITORPENAREN EREDUA

.....
jaun/andreak,....., PK helbidea duenak..... NAN zenbakiarekin, telefono-zenbakiarekin eta.....e-postarekin, lege eta jarduteko gaitasun osoz, bere izenean (edo .....ri ordezkatuz, helbidea.....; PK: .....; telefonoa.....; eta NAN edo IFK *(pertsona fisiko edo juridikoa izatearen arabera)* ....., Debagoieneko Mankomunitateak hainbat edukietarako edukiontziak hornitzearen kontratazioa prozedura irekiaren bidez egindako deialdiaz jakitun izanik, honakoa

AITORTZEN DU:

Kontratazioan parte hartzeko proposamenari buruz, honako jarduera hauek azpikontratatuko dituela:

JARDUERA	KONTRATUAREN PREZIOAREN GAINEAN EHUNEKOA (BEZrik gabe)	AZPIKONTRATATUTAKO ENPRESA

(*) *Erantsi azpikontratazioaren konpromisoa edo gutuna eta kaudimen tekniko edota profesionalari buruz azpikontratatutako enpresen baldintzen erreferentziak*.

Arrasaten, 202_____ko .....aren.....(e)an

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA

IV. ERANSKINA. ESKAINTZA EKONOMIKOAREN EREDUA

IDENTIFIKAZIO-DATUAK

1. abizena, 2. abizena, Izena	NAN-IFZ

Nire izenean	
Ordezkatzen dudan enpresaren izenean	

Ordezkatuaren izen soziala:

Ordezkatuaren IFK:

KONTRATAZIO-ESPEDIENTEAREN DATUAK

Kontratuaren izena	Erreferentzia-kodea
20 litroko edukiontzien hornidura	65/2024

Adierazitako kontratazio-espedienteari dagokionez eskatzen diren baldintzen eta betekizunen jakitun, honako ESKAINTZA EKONOMIKO hau proposatzen du:

- **..... €/ unitatea , gehi.....€ BEZ % 21. Guztira.....€/ unitateko. (Gainera, prezioa letraz idatzi)**

Lekua eta eguna:

Enpresaren izena	*Sinadura*